

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Zambranako Udalaren 2020rako oinarri arautzaileak eta dirulaguntza deialdia Zambranako enpresa berriei laguntzak emateko Ekin Programarako

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 18an egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Onestea Zambranako Udalaren 2020rako oinarri arautzaileak eta dirulaguntza deialdia, Zambranako enpresa berriei laguntzak emateko Ekin Programarako. Hona hemen oinarri arautzaileak:

Zambrana, 2020ko ekainaren 18a

Alkate-udalburua

AITOR ABECIA JIMÉNEZ ABERASTURI

2020RAKO DEIALDI PUBLIKOA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK, ZAMBRANAKO EKINTZAILEEI LAGUNTZAK EMATEKO EKIN PROGRAMARAKO

ZIOEN ADIERAZPENA

Zambranako Udalak, ZAMBRANA EKIN planaren bidez, udalerraren garapen sozioekonomikoa bultzatu nahi du, eta horretarako, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, enpresak sortzen laguntzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko proiektu estrategikoak sustatzeko egiten du lan.

Testuinguru horretan, laguntzek bi helburu dituzte: ekintzailtza proiektuak babestea eta enpresei lehiakorragoak izaten laguntzea.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Artikulu hauen xedea da arautzea Zambranako udalerrian enpresa jarduerak ezartzeko eta berritzeko finantzaketan laguntzeko Zambranako Udalak eman ditzakeen laguntza ekonomikoen deialdia eta esleipena. Horrela, modu aktiboan lagunduko du Zambranako udalerrian aberastasuna sortzen duten enpresa proiektuak abian jartzen.

2. artikulua. Kreditu erabilgarria

2020ko ekitaldian, programa honetarako erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak 2020rako onetsitako erakundearen gastuen aurrekontuan daude kontsignatuta, 241.33201 aurrekontu partidaren kontura ("Tokiko ekintzaileentzako aholkularitza"), eta 1.000,00 eurokoak dira.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

3.1.- Diruz laguntzeko modukoak dira:

- Eraketa gastuak: sozietateak eratzeko kostuak (ziurtagiriak, notariotza, erregistroa...).
- Proiektuari lotutako komunikazio gastuak:

3.1.1.- Publizitate eta merchandising kanpainak, establezimendu eta ibilgailuetan erroterluak jartzea, erroterluak argizatzea eta publizitatea diseinatu, inprimatu eta eskura ematea. Bi hizkuntzatan (euskaraz eta gaztelaniaz).

3.1.2.- Sare sozialetan profila eta edukia sortzea, beste enpresa batzuen webguneetan publizitate bannerra jartzea, webguneen mantentze kuotak, webgunean pluginak sartzearekin lotutako gastuak, eta sare sozialetako sustapen zerbitzuen kostua. Gutxienez urtebeteko epea ezartzen da, eta epe horretan eguneratuta egon behar dute web orriek eta sare sozialek.

– Proiektu teknikoaren gastuak: Jarduera lizentzia lortzeko eskatzen den proiektu teknikoaren kostua.

– Aholkularitza tekniko espezializatuaren gastuak: Zerbitzu espezializatu baten kostua (ingeniaritza, informatika, zuzenbidea, lan harremanak etab.).

– Prestakuntza osagarriaren gastuak: Enpresa proiekturako beharrezkoa den prestakuntza osagarriko ekintzen kostua.

– Inbertsioa ibilgetuetan: Instalazioak (energia efizientziako irizpideak erabiliko dira instalazio elektrikoaren, argiztapen instalazioen eta abarren kasuan), tresnak, altzariak, makinak, ibilgailuak (behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik, jarduera garatzeko ezinbestekoa bada) etab. Aktibo horiek erosketa datatik (faktura data) gutxienez 2 urtez egon behar dute fisikoki establezimenduan.

– Añanako eskualdean negozio eredu berri bat abian jartzeko beharrezkoak diren lan eta azterketa gastuak.

3.2.- Erakunde eskatzaile bakoitzak lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 1.000,00 eurokoa izango da, eta, beraz, aldeko ebazpena jaso duen eta puntuaziorik handiena lortu duen proposamena bakarrik lagunduko da diruz. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, fakturan edo gastua justifikatzeko antzeko dokumentuan adierazitako zerga oinarriari dagokion zenbatekoa bakarrik hartuko da kontuan, BEZa eta bestelako zergak kenduta.

4. artikulua. Laguntzen izaera

– Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

– Dirulaguntzak emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da beti, eta norgehiagoka araubidean izapidetu eta ebatziko da. Hartzailearen egoera jakin bat gertatze hutsagatik izapidetuko da, eta eskaeren arteko alderaketa egingo da, eskaeren lehentasun hurrenkera ezartzeko.

5. artikulua. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eta ondasun erkidegoak izan daitezke laguntzen onuradunak, baldin eta enpresa ekimen bat abian jartzen badute edo hasi badute azken bi urteetan udalerrian eta zerga egoitza Zambranako udalerrian badute.

6. artikulua. Onuradunen betekizunak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan xedatutako betekizun orokorrez gain, onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

– Zambranako udalerrian enpresa jarduera bat hasi beharko dute edo azken bi urteetan hasitakoarekin jarraitu.

– Jarduerak Zambranako udalerrian egon behar du kokatuta.

– Zambranako Udalean erroldatuta egon behar du enpresa proiektuaren sustatzaileetako batek gutxienez, oinarri hauek ALHAOn argitaratu baino 5 hilabete lehenago gutxienez.

– Enpresak ezin ditu 10 langile baino gehiago izan eskaera egiten den egunean.

– Dirulaguntza honen onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga arloko administrazio publikoekiko betebeharrak, bai eta gizarte segurantzarekikoak ere.

– Enpresak gutxienez 24 hilabetez jarraitu beharko du lanean. Jarduera amaitzen bada, itzulketa prozedura bat hasiko da, eta onuradunak emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 itzuli beharko du.

Horiek horrela, eta bete beharreko gainerako formalitateak gorabehera, Zambranako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxienerako baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen edozein agiri.

Ez dira kontuan hartuko, ezta onartuko ere, horiek betetzen ez dituzten erakundeek aurkeztutako eskabideak.

7. artikulua. Balorazio irizpideak

Honako hauek izango dira eskabideak ebaluatzeko irizpideak:

BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
A- Proiektuaren berrikuntza maila	30 puntu
B- Proiektuaren zehaztasun maila	30 puntu
C- Laguntza prozesuetan parte hartzea	20 puntu
D- Emakumeen parte hartzea (ehuneko 50, gutxienez)	20 puntu

A- 30 puntu emango dira proiektuaren berrikuntza mailaren arabera; hori balioesteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Ideia berriak, egiteko modu berriak dakartzaten ala ez, edo ekintzailtzarako metodologietan edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore estrategikoetan berrikuntza dakarten ala ez. (15 puntu).

– Ideia berriak, egiteko modu berriak dakartzaten ala ez, edo ekintzailtzarako eta enplegurako metodologietan berrikuntza dakarten ala ez, ekonomia jasangarriarekin eta enplegu berdearekin, zaintzaren ekonomiarekin edo sektore turistikoekin zerikusia duten sektore ekonomikoetan. (15 puntu).

B- 30 puntu emango dira proiektuaren zehaztasun mailaren arabera; hori balioesteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Aurkeztutako proiektuaren eta helburuen arteko koherentzia. Enpresa plana aurkeztea (15 puntu).

– Proiektuaren hurrengo bi urteetarako ekoizpen taula eta gastuak. (15 puntu).

C- 20 puntu emango dira ideiak, proiektuak, dibertsifikazioa etab. garatzeko laguntza pertsonalizatuko zerbitzu batean parte hartu izana egiaztatuz gero.

D- 20 puntu emango dira proiektua garatzen eta gauzatzen parte hartzen duen emakume kopuruaren arabera; hori balioesteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Parte hartzaileen ehuneko 100 kolektibo horretakoa bada, 20 puntu emango dira.

– Parte hartzaileen ehuneko 75 kolektibo horretakoa bada, 15 puntu emango dira.

– Parte hartzaileen ehuneko 50 kolektibo horretakoa bada, 10 puntu emango dira.

Berdinketa gertatuz gero, honako lehentasun irizpide hauen arabera zehaztuko da ordena:

a) Artikulu honetako a) irizpidean puntuazio handiena lortu dutenak.

b) Artikulu honetako b) irizpidean puntuazio handiena lortu dutenak.

c) Eskabidea Zambranako Udaleko sarrera erregistroan sartu zen hurrenkeraren araberako lehentasuna.

Diruz lagundutako eskabideen gutxienerako kalitatea ziurtatzeko, ezetsi egingo dira proiektuaren balorazioan 40 puntu baino gutxiago lortzen duten eskabideak.

8. artikulua. Instrukzio egiteko eta ebazteko organo eskuduna

– Ebaluazio batzorde baten irizpena beharko dute eskabideek. Batzorde horrek honako kide hauek izango ditu:

- Udal arkitektoa.
- Landa Garapenerako Elkarteko teknikaria.
- Oinarrizko gizarte langilea.
- EAJ-PNVko ordezkari bat eta PPko beste bat.
- Udaleko alkate-lehendakaria.

Gutxienez 2 teknikari eta kargu politiko bat egon behar dira ebaluazio batzorde hori eratzeko.

- Batzorde horrek, irizpena emateko instrukzioan, jarduera hauek gauzatu beharko ditu:
- Beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatu.
- Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan zehazten diren balioespen irizpideen arabera.

– Alkatetzak, ebaluazio batzordeak proposatuta, dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, arrazoiak azalduta. Ebazteko epea 15 egunekoa izango da, ebaluazio batzordeak irizpena ematen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ebazpenik eta jakinarazpenik ematen ez bada, ebazpenak ezespren ondorioak izango ditu. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren aurretik, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Zambranako Udaleko alkatetzari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz.

9. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

– Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek ematen dituzten eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten beste batzuekin.

– Hala ere, dirulaguntzen zenbatekoak, oro har, ezin izango du, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

10. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Zambranako Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira (Udaletxea kalea 2, 01212 - Zambrana, Araba), aurrez aurreko arretarako ordutegian edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bitartekoren bidez.

Eskabidea aurkeztean, oinarri hauen edukia onartzen da.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko irailaren 15ean amaituko da.

11. artikulua. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideek ez badituzte betetzen artikulua hauetan eskatzen diren baldintzak, edo eskabidearekin batera ez badira aurkeztu eskatutako agiriak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 71. artikulua arabera, dei egingo zaie interesdunei, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, beren eskarian atzera egin dutela ulertuko dela eta beste izapiderik egin gabe artxibatuta geratuko dela, lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Eskabidea ez da bideratuzat joko harik eta behar bezala beteta eta espedientea osatuta egon arte. Espedientea osatuta egoteko, bada, entregatutako dokumentazioa erregistratuta egon beharko da.

12. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza eskaerak deialdi honen I. eranskinean jasotako eskabide eredu normalizatuan aurkeztu behar dira, enpresaren edo erakundearen ordezkariak sinatuta, honako agiri hauekin batera:

- Gauzatuko den enpresa jarduera deskribatzen duen memoria (gehienez 5 orri bi aldeetatik).
- Eskabidearen inprimakia eta zinpeko aitortpena: I. eranskina.
- Pertsona fisikoa izanez gero, NANaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa izanez gero, IFKren eta enpresaren eraketa eskrituren fotokopia.
- Enpresak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Enpresak Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Deialdi honen oinarriak ezagutu eta onartzearen aitortpena: II. ERANSKINA
- Dirulaguntza publikoak itzultzeko edo zigortzeko prozedurarik ez duela adierazten duen zinpeko erantzukizunpeko adierazpena: II. ERANSKINA.
- Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arazoien ziozko bereizketagatik ezarritakoak barne: . II. ERANSKINA.
- Zinpeko adierazpena, ekintza bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako laguntzen gainekoa: II. ERANSKINA.

13. artikulua. Gastua justifikatzea

Emandako dirulaguntza justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira Zambranako Udaleko Erregistro Orokorraren bidez:

- Fakturak.
- Ordainagiriak.
- Ordaindutako ekintzen laburpen memoria.

14. artikulua. Ordaintzeko era

Alkatetzak eskabideak ebatzi ondoren, laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, diruz lagundutako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopiak eta konpultsatuak aurkeztu ondoren, betiere aurreko baldintzak betetzen badira.

15. artikulua. Diruz lagundu daitekeen gauzatze aldia

Dirulaguntzaren xede diren ekintzak 2020ko ekainaren 1etik 2020ko abenduaren 15era bitarteko aldian gauzatu beharko dira. Ez da diruz lagunduko egun horren aurretik egindako gasturik.

16. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hausteekin eta zehapenekin lotutako gaietan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluaren eta lege horren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluaren xedatutakoa.

17. artikulua. Araudi aplikagarria eta araubide osagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena.

18. artikulua. Dirulaguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dagozkion legezko interesak eskatzekoa ere, baldin eta onuradunek ez badituzte betetzen artikulua hauetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak, hori guztia arau hauste horren ondorioz bidezkoak diren ekintzak alde batera utzi gabe.

19. artikulua. Konfidentzialtasun klausula

Zambranako Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten du ezen eskatzaileen datu pertsonalak erakunde horren datu pertsonalen fitxategi automatizatueta gorde ahalko dituela. Fitxategi horien helburua erakundearen jarduerak zabaltzea eta sustatzea da. Horrenbestez, interesdunek hala nahi badute, datuak ikusi, berretsi, deuseztatu eta aurkaratu ahalko dituzte, Udaleko informazio eta erregistro zerbitzuaren bidez.

20. artikulua. Indarrean jartzea

Laguntza deialdi hau eta oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

**I. ERANSKINA
EKIN PROGRAMARAKO DIRULAGUNTZAK****2020KO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA****INTERESDUNAREN DATUAK**

Izen-abizenak/Sozietatearen izena:	
NANa/IFZ/Pasaportea:	
Jakinazpenetarako helbidea:	
Harremanetarako posta elektronikoa:	
Telefonoa:	

ENPRESAREN DATUAK

Izen-abizenak/Sozietatearen izena:	
IFK:	
Jakinazpenetarako helbidea:	
Harremanetarako posta elektronikoa:	
Telefonoa:	

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK

Deskribapen memoria	
NANaren/IFKren fotokopia	
Enpresak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua	
Enpresak Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua	
Beste (zehaztu)	

II. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
(HAUTATU DAGOKIONA)

Adierazten dut ezagutzen eta onartzen ditudala deialdi honen oinarriak.	
Adierazten dut enpresak egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta toki ogasunarekikoak.	
Adierazten dut ez nagoela dirulaguntza publikoak itzultzeko edo zigortzeko prozeduretan sartuta.	
Adierazten dut erakunde eskatzaileari ez zaiola ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoien ziozko bereizketagatik ezarritakoak barne.	
Adierazten dut honako laguntza hauek eskatu dizkiodala beste erakunde publiko edo pribatu batzuei ekintza bererako: 1. 2. 3. 4.	

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,

.....(e) koaren(a).

Interesduna:

Ordezkarria:

Izpta:.....

Izpta:.....